Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4962

3755/2009 EBAZPENA, uztailaren 31koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena -Osakidetzako Administrazio Kontseiluak emandako eskuordetzea baitu-, toki-erakundeetarako laguntzak esleitzeko dena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2009ko otsailaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, 2009. urtean toki-erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.

Eskabideak aurkeztuta, helburu horretarako izendatutako batzordeak aztertu eta gero, laguntzak esleitzeko proposamena egin zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari ebazpena eman dezan.

Beraz, deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoa betez, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak emandako eskuordetzeaz baliatuz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Honako toki-erakunde hauei, dagozkien diru-laguntzak ematea. Bakoitzari, aipatzen diren kontzeptuengatik, adierazitako zenbatekoa emango zaio. Laguntzak ematea eta ordaintzea Batzordeak deialdian ezarritako baldintzen menpe egongo da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

4962

RESOLUCIÓN 3755/2009, de 31 de julio de 2009, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por delegación del Consejo de Administración del ente público, por la que se adjudican las ayudas destinadas a corporaciones locales.

Por Acuerdo de 4 de febrero de 2009, del Consejo de Administración del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud, fue aprobada la convocatoria y bases reguladoras del año 2009 para la concesión de ayudas a Corporaciones Locales.

Presentadas las solicitudes y valoradas las mismas por la Comisión nombrada al efecto, se ha elevado propuesta de adjudicación de ayudas para su resolución por la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Así, en cumplimiento de la base 7 de la convocatoria y en virtud de la delegación recibida del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

RESUELVO:

Primero.– Conceder a las Corporaciones Locales que a continuación se mencionan las correspondientes ayudas, en la cuantía y por los conceptos que se detallan para cada una de ellas, quedando sometida la concesión y abono correspondiente al cumplimiento de las condiciones establecidas en la convocatoria y por la Comisión de ayudas.

Araba/*Álava*

Eskualdea *Comarca*	Udaletxea-Administrazio-batzarra *Ayuntamiento-Jta. Administ.*	Azalpena *Concepto*	Laguntza (euroak) *Ayuda (euros)*
Araba	Alegría-Dulantzi	Mediku-kontsultategiko biltegia egokitzea (Iruraiz 2) / *Acondicionamiento del almacén del consultorio médico, sito en c/ Iruraiz, n.º 2*	10.000
Araba	Barrundia	Mediku-kontsultategi berria (kokalekua: Boilar 12) / *Nuevo consultorio médico, a ubicar en c/ Boilar, 12*	25.000
Araba	*Campezo*/Kanpezu	Mediku-kontsultategiko mantentze-lanak (Samuel Picaza pl. 6) / *Obra de mantenimiento en consultorio médico, en Pza. Samuel Picaza, n.º 6*	6.000
Araba	Erriberagoitia/*Ribera Alta*	Pobesko mediku-kontsultategirako altzariak (Udaletxeko behealdea) / *Mobiliario para el consultorio médico de Pobes, sito en el bajo del Ayuntamiento*	6.000
Araba	Kuartango	Kontsultategirako sarrera urbanizatzea (udaletxearen partzela) / *Urbanización de acceso al consultorio, en parcela de la casa consistorial*	23.500
Araba	*Lanciego*/Lantziego	Kontsultategia konpondu eta handitzea (Eleizako pl. 1) / *Reforma y Ampliación del consultorio, en Pza. de la Iglesia, n.º 1*	70.000
Araba	*Valdegovía*/Gaubea	Espejoko mediku-kontsultategia konpontzea / *Reforma del consultorio médico de Espejo*	7.000
		Orotara *Total*	147.500

Bizkaia

Eskualdea *Comarca*	Udaletxea *Ayuntamiento*	Azalpena *Concepto*	Laguntza (euroak) *Ayuda (euros)*
Ezkerraldea-Enkarterri	Karrantza Harana *Valle de Carranza*	Kontsultategia konpondu eta oztopo arkitektonikoak kentzea (Concha 17) / *Reforma y supresión de barreras arquitectónicas en consultorio, de Concha, 17*	25.000
Ezkerraldea-Enkarterri	Galdames	Mediku-kontsultategian sarrera, altzariak eta zerbitzu-sariak (San Pedro pl. 6) / *Accesibilidad, mobiliario y honorarios en consultorio médico, en Pza. San Pedro, 6*	26.000
Barrualdea *Interior*	Artziniega	Mediku-kontsultategi berrirako proiektu osoa eta lanak (kokalekua: Geltoki pl. z/g) / *Proyecto completo y obra nuevo consultorio médico, en Geltoki Pza, s/n*	81.000
Barrualdea *Interior*	*Ayala*/Aiara	Arespalditzako kontsultategirako altzariak (Eleizalde auzoa 16, behea) / *Mobiliario para el consultorio de Respaldiza, en el B.º La Iglesia, 16 bajo.*	24.000
Barrualdea *Interior*	Berriatua	Mediku-kontsultategi berrirako proiektu osoa (kokalekua: Erribera kalea 32) / *Proyecto completo del nuevo consultorio médico, a ubicar en Eribera kalea, 39*	22.000

Eskualdea *Comarca*	Udaletxea *Ayuntamiento*	Azalpena *Concepto*	Laguntza (euroak) *Ayuda (euros)*
Barrualdea *Interior*	Nabarniz	Mediku-kontsultategirako erradiadoreak (Eleizalde auzoa 3) / *Radiadores para el consultorio médico, sito en Eleizalde auzoa, 3*	1.500
Barrualdea *Interior*	Orozko	Mediku-kontsultategi berrirako proiektu osoa eta lanak (kokalekua: Egoalde bizitegi-sektorea) / *Proyecto completo y obra del nuevo consultorio médico, en el sector residencial Egoalde*	84.850
Barrualdea *Interior*	Zeberio	Oztopo arkitektonikoak kendu eta kontsultategiko komunak konpontzeko lanak (Zubialde 10, behea) / *Reforma supresión de barreras arquitectónicas y aseos del consultorio, en B.º Zubialde, n.º 10 bajo*	13.650
Uribe	Fruiz	Mediku-kontsultategi berrirako proiektu osoa eta lanak (kokalekua: A-1 sektorea) / *Proyecto completo y obra del nuevo consultorio médico, a ubicar en Sector A-1*	68.500
Uribe	Gamiz-Fika	Kontsultategiko fatxada eta estalkia konpontzea (Fikako plaza z/g) / *Reforma en fachada y cubierta del consultorio, sito en Pza. de Fika, s/n.*	29.000
Uribe	Maruri-Jatabe	Mediku-kontsultategi berriko lanak eta altzariak (Erdigunea 70) / *Obra y mobiliario del nuevo consultorio médico, en Erdigune, 70*	54.000
Uribe	Meñaka	Mediku-kontsultategi berria habilitatzeko proiektu osoa eta lanak (udaletxeko beheko solairuan) / *Proyecto completo y obra habilitación para consultorio médico, en planta baja de la casa consistorial*	73.000
		Orotara *Total*	502.500

Gipuzkoa

Eskualdea *Comarca*	Udaletxea *Ayuntamiento*	Azalpena *Concepto*	Laguntza (euroak) *Ayuda (euros)*
Gipuzkoa mendebaldea / *Gipuzkoa Oeste*	Anoeta	Mediku-kontsultategia konpontzea (Solkorre kalea 6) *Reforma del consultorio médico, sito en Solkorre kalea, 6.*	50.000
		Orotara *Total*	50.000

Laguntzen zenbatekoa, guztira: 700.000 euro.

Aipatutako laguntza jasotzeko, toki-erakunde bakoitzak onartu egin beharko ditu laguntzok, baita deialdian adierazitako gainerako eskakizun guztiak ere.

Diru-laguntza Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ordainduko du transferentzia bidez; horretarako, onuradunak diru-laguntza ematean helburu zena bete dela egiaztatu beharko du jatorrizko agiriaren bidez, kasu bakoitzaren arabera: proiektua idazteagatiko ordainsariak, obra-ziurtagiriak -arkitekto zuzendariak baloratu eta sinatutakoak- edo ondasun higiezinak eskuratu direla egiaztatzen duten fakturak -aurrekontua aurrez onartuko da-, baita ordainketa onartzen duen udalbatzaren zein gobernu-batzordearen edo alkatetzaren erabakia edo dekretua ere.

Ordainketa egiteko agiriak aurkezteko azken eguna 2010eko abenduaren 31 izango da, eta obrak legez ezarritako prozedurak erabiliz burutuko dira.

Bigarrena.– Aiarako Udalari 1.477,57 euro berriz esleitzea, Arespalditzako mediku-kontsultategi berria egokitzeko lanetarako, Bergarako Udalaren espedientean soberan geratutako zenbatekoa ezeztatzeagatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Diru-laguntza jasoko duten toki-erakundeei dagokien onarpen-agiria bidaltzea; agiri hori behar bezala beteta itzuli beharko dute, jakinarazten denetik hasi eta 15 eguneko epean.

Interesdunek behin betiko ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio-Kontseiluari, EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran). Horretaz gain, administrazioarekiko auzien bideari ere ekin ahal izango diote zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuta.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 31.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

Importe total de las ayudas: 700.000 euros.

Las concesiones que anteceden están sometidas a la condición de aceptación de las mismas por la corporación local de que se trate, así como al resto de requisitos señalados en la convocatoria.

El pago de la ayuda, se realizará por Osakidetza-Servicio vasco de salud, mediante la oportuna transferencia y previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió, mediante documento del beneficiario según el caso; de honorarios profesionales por la redacción del proyecto, de certificaciones de obra, valoradas y firmadas por el Arquitecto-Director, o de las facturas justificativas de la adquisición del mobiliario, cuyo presupuesto ha sido aceptado con anterioridad, así como del Acuerdo Plenario, Acuerdo de la Comisión de Gobierno o Decreto de la Alcaldía, aprobando el pago.

El plazo máximo de presentación de la documentación para realizar el pago será el 31 de diciembre de 2010 y las obras habrán de llevarse a cabo por los procedimientos legalmente establecidos.

Segundo.– Reasignar al Ayuntamiento de Ayala, para Obra de Adecuación del nuevo consultorio médico de Respaldiza, 1.477,57 euros, por la anulación de la cantidad sobrante del expediente del Ayuntamiento de Bergara.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente resolución en el BOPV.

Cuarto.– Remitir a las Corporaciones Locales adjudicatarias el correspondiente documento de aceptación, que deberán devolver debidamente cumplimentado en el plazo de 15 días a contar desde su notificación.

Contra la presente Resolución, que es definitiva, podrá interponerse potestativamente recurso de reposición ante el Consejo de Administración de Osakidetza, en el plazo de un mes, contando a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, según redacción de Ley 4/1999. Todo ello sin perjuicio de la posibilidad de acceso directo a la vía contenciosa mediante el pertinente recurso contencioso-administrativo.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de julio de 2009.

El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.